

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Mutiloako osasun-zentroa 2018ko azken hiruhilekoan jarriko da martxan

Nafarroako Gobernuak gaur onartu du milioi bat euro baino gehiago emango dizkiola Aranguren Ibarreko udalari obrak amaitzeko

Asteartea, 2017.eko azaroak 28

Gaurko saioan Nafarroako Gobernuak lortu duen akordio baten bidez, baimena ematen zaio Osasunbideko zuzendari kudeatzaileari milioi bat euro baino gehiagoko diru-laguntza eman diezaion Aranguren Ibarreko udalari Mutiloako mediku-kontsultategia zabaltzeko eta eraberritzeko obrak finantzatzeko, 2018. urtearen amaieran osasun-zentro bihur dadin.



Mutiloako etorkizuneko osasun-zentroaren lanak

Kopuru horri beste 270.000 euro gehituko zaizkio datorren urtean, ekipamendua finantzatzeko.

Osasuneko kontseilari Fernando Domínguezek Gobernu Saioaren ondorengo prentsaurrekoan nabarmendu duenez, "Aranguren Ibarrean bizi diren biztanle berriek dituzten osasun-beharrak konponduko ditu proiektu honek.

Aurreikusten da osasun-zentro berri honek, gutxi gorabehera, 12.500 biztanle artatu ahal izango dituela".

Mutiloako egungo kontsultategia osasun-zentro bihurtzearekin batera, Aranguren-Mutiloako Eskualde Oinarrizko berri bat sortuko da, eta haren mende egongo dira Aranguren Ibarreko udalerrri guztiak; beraz, ez dira Mendillorriko Osasun Eskualde Oinarrizkoaren mende egongo, orain dauden bezala.

Hala, egokiagoa izango da Arangurengo biztanleei ematen zaien arreta, eta biztanleek askoz errazago jaso ahal izango dituzte osasun-zentroaren zerbitzuak, ez baitute Mendillorrira joan beharrik izango prozedura jakin batzuk egitera, gaur egun gertatzen den bezala.

Zentro berriaren obrak joan den abuztuan hasi ziren, eta hirukoiztu egingo dute zentroaren egungo azalera: gaur egun, 400 metro karratu inguru ditu, eta zentro berriak 1.550 metro erabilgarri izango ditu, gutxi gorabehera.

12.500 biztanle artatuko ditu: haietatik 3.500 14 urte edo gutxiagokoak,

eta, gainerako 9.000k, 14 urtetik gorakoak.

Laguntza-guneak familia-medikuntzako 7 kontsulta izango ditu, pediatriako 3 kontsulta, erizaintzako 10 kontsulta, larrialdi-gela bat, kirurgia txikiko kontsulta bat, botika-kutxarako eta erauzketetarako gela balioaniztun bat eta gizarte-laneko bulego bat.

Espazioaren gainerakoan, harrera-gunea, langileen gunea, erabilera anitzetarako gunea (osasun-heziketarako gela bat izango du informaziozko hitzaldietarako, familia-plangintzarako, prebentziozko gimnastikarako...) eta instalazio- eta biltegi-gunea egongo dira.

Langileei dagokienez, egungo kontsultategiak 4 familia-mediku ditu, 2 pediatra, 6 erizain eta harrerako 4 profesional.

Beharren arabera, beste 10 profesional ere har daitezke, pixkanaka

Osasun Departamentuak, guztira, 2 milioi euro baino gehiago inbertituko ditu proiektu honetan:

2016an, 25.000 euro inbertitu ziren proiektua idazten; 2017an, 740.000 euro bideratu dira obrak egikaritzera, zeinak datorren urtean amaituko baitira, 1,06 milioi euro gehiago inbertituz. Azkenik, beste 270.000 euroko gastua aurreikusten da zentroa ekipamenduz hornitzeko.